

**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

2021-12-03 Bilbao 03-12-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Mundu zabaleko euskaldun guztiok, agur, Euskararen Nazioarteko Egunean.

Euskarak elkartzen gaitu, bere altzoan jaso eta zerumugara begira jartzen gaitu.

Kirmen Uribe-k, Charles Darwin-i jarraituz, “Abangoardia maite duen aintzinako herria” liburuan jasotzen duen moduan: “denok gara beharrezko munduko ekosistema erraldoian” eta “guk ere aniztasun horrexetan dugu zain etorkizuna”. Horrela, munduaren parte izateko gure modua da euskara.

Koloretako txori bat da euskara, munduan diren zazpi mila hizkuntzen artean. Koloretako gure txori txikia, bitxia, bizia. Munduak euskarari begiratzen dion moduan euskarak ere munduari begiratzen dio. Elkar elikatzen dira, elkar ulertzen, elkarrekin bizi dira.

Pandemiaren garai latza bizitzen ari gara eta zailtasunak-zailtasun, itxaropenari atek zabalduz, aurrera goaz. Baita euskarari dagokionean ere.

Garai hauetan herritar guztiok garbi izan dugu zertan den lehentasuna: elkar zaintzea, elkarrekin aurrera egiteko, inor atzean utzi gabe. Alegia, bizikidetzan pauso sendoak ematea; eta, gure artean, bizikidetzak euskara ere bada.

Gure bizitzaren, bizimoduaren, elkar ulertzearen muinean dago euskara. Gure izena eta izana da euskara; euskaldun egiten gaituena.

Aro berri baten aurrean gaude. Dena berria izango baitu aro berri honek: berriak izango dira komunikazio eta harreman sare eta elkarguneak; lan egiteko eta aisiaz gozatzeko moduak; gobernantza eta partehartzerako bideak; eta gaur oraindik antzematen ez ditugun hainbat eginkizun eta gune ere.

Krisialdiak orok darama bere baitan mundu berri baten hazia. Eraldaketa garaiak, abagune garaiak dira. Baita euskararentzat ere.

Euskal hiztunon eta euskal gizarte osoaren esku dago, mundu berri horretan euskara zimentarri izan dadila lortzea. Honetarako euskarak bere arnagune propioak behar ditu, bereak izango diren garapen guneak. Horrela ikusi dugu eta horrela izan dadin ahalegintzen ari gara Eusko Jaurlaritzan eta Lehendakaritzan ere.

Gure hautua argia da: euskara zerbitzu hizkuntza izatetik lan hizkuntza izatera bihurtzea. Horrek izan behar du, aro berri honetan, euskal administrazioaren erronka. Horregatik aurkeztu gara Lehendakaritza BIKAIN ebaluaketara eta gaur da eguna, euskararen normalkuntza bidean, euskara lan hizkuntza bihurtze bidean, beste mugarri bat gainditu duguna. Lan taldearen konpromisoaren fruitu bikaina izan da.

Elkarrekin bide hau egitera gonbidatzen zaituztet. Bereziki gazte eta belaunaldi berriei begira.

Gazteek euskaraz bizitzeko aukera naturaltasun osoz mamitu dute. Ondorioz, ikasi dutena, naturaltasun osoz garatzeko aukera izatea zor diegu. Hau bereziki, lan esparruak euskalduntzetik hasten da. Hau izan behar da gure egiteko nagusia datozen urteotan.

Gu guztion erantzukizuna da; euskal hiztunon eta gizarte osoaren erantzukizuna, aukera hori geure buruari eraginkortasunez bermatzea.

Hau da, urte berezi honetako Euskararen Nazioarteko Egun berezi honetan, ospakizun egun honetan, zuen aurrean hartzen dudan konpromisoa: "Munduaren parte izateko gure munduaren erdigunean euskara jartzea".

Euskarari, beste hizkuntza guztiak dituzten moduan, garapen gune propioak eskainiz, euskaraz ikasteko, euskaraz lan egiteko eta euskaraz bizitzeko.

Eskerrik asko eta, Euskararen Nazioarteko Egunean, agur!